

**GIPUZKOAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO
SAREA PROGRAMAKO LAGUNTZEN 2015eko DEIALDIA**
(GAO, 2015/06/24)

Deialdiaren helburua:

Ikerketa zentroek, teknologia zentroek, I+Gko unitateek, unibertsitateek eta deialdian aurreikusitako eskakizunak betetzen dituzten bestelako erakundeek egin dituzten ikerketa eta inbertsio proiektuak babestea.

Erakunde onuradunen betekizunak:

Erakundeek Gipuzkoan egon behar dute. Beraz, UPV/EHUri dagokionez, ikertzaileek Gipuzkoako Campuseko sail edo institutuetoako kide izan behar dute.

Eusko Jaurlaritzaren deialdietan aitortutako UPV/EHUko talde kontsolidatuek ezingo dute proiekturik aurkeztu.

Proiektu motak:

- a) I+G proiektu berriak, Enpresako I+Gko unitate gisa akreditatutako erakundeek egindakoak. Akreditazio hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean egin behar da, eta proiektuak sare horren beste zentro batzuekin lankidetzan egin ditzakete.
- b) Enpresako I+G unitate berriak sortzea.
- c) **Ekipamendu aurreratuan inbertitzeko proiektuak.** (*Kasu horretan, Aldundiak diruz lagun daitekeen kostuaren % 50 emango luke; beraz, ikertzaile nagusiak gainerako % 50a finantzatzeko organiko bat adierazi behar du*)
- d) **I+Gko proiektuak biozientzien, mikro eta nanoteknologien, manufacturing aurreratuaren eta energia berrien eremuetan.** (*Diruz lagun daitekeen % 100*)

Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

Eskaerak aurkezteko epea **2015eko uztailaren 21eko 13:00etan** amaituko da.

Eskaera egiteko inprimakiak helbide honetan daude:

<http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DMSPortalSubvencionesWEB/busquedaModelosDocumentos.do?ejercicio=2015&codDepartamento=2&codServicio=INCIEN&procedimiento=INCIEN01&idioma=C>

Eskaera bi modutan aurkez daiteke:

- **Aplikazio informatikoa:** [lotura honen](#) bidez.
- **Paper formatuan:** Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa Sailaren Erregistro Orokorrean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian (Gipuzkoa plaza, zk.g., Donostia-San Sebastián) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein bidetatik.

UPV/EHUⁿ IZAPIDETZEA:

Ikertzaile nagusiak arduratuko dira eskaera behar bezala eta behar denean aurkezteaz; izan ere, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du aplikaziora sartzerik.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa Sailak Ikerketaren arloko Errektoreordetzari igorriko dizkio aurkeztutako eskaerak, onar ditzan, lege ordezkarari baten bidez. "Ekipamendu aurreratuan inbertitzeko proiektuak" direnean, ikertzaile nagusiak aurrekontuaren gainerako % 50a finantzatzeko duen organiko baten berri eman beharko du.

Harremanetarako telefono zenbakia (UPV/EHU):

94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.es

Harremanetarako (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Maite Salustiano Esnoz

Tel.: 943 11 22 33

E-maila: msalustiano@gipuzkoa.net

Informazio gehiago:

<http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DMSPortalSubvencionesWEB/ficha.do?lineaAyudaFicha.codigoServicio=INCIEN&materia=&perfil=&esBusqueda=SI&lineaAyudaFicha.ejercicio=2015&lineaAyudaFicha.codigoDepartamento=2>